

Esklerosi anizkoitzaren aldeko 'Mojate-Busti Zaitetz' kanpaina abian da

Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarteak antolatu du kanpaina, eta Vital Fundazioaren, Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren babesa jaso du

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailak 7.- Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarteak (AEMAR) 'Mojate-Busti Zaitetz' kanpaina berreskuratu du, iaz pandemiaren ondorioz bertan behera utzi behar izan ostean. Edizio hau, XXIV.a, datorren igandean, hilak 11, egingo da Arabako Lurralde Historikoko hainbat igerilekutan eta ekitaldi nagusia eguerdiko 12:00etan izango da Estadio Fundazioaren instalazioetan. Kanpainak Vital Fundazioaren, Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren babesa du.

‘Mójate- Busti Zaitetz’ esklerosi anizkoitza pairatzen duten pertsonetikiko sentsibilizazio- eta elkartasun-kanpaina da. Ekimenari atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko igerilekuetan eta hondartzetan egiten da, eta pertsona guztiek parte har dezakete bertan, gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko behar dituzten birgaitze-zerbitzuak mantentzen laguntzeko dirua biltzeko.

Arabako 2021. edizioaren aurkezpenean, ekimena babesten duten erakunde guztietako ordezkariak hartu dute parte: Axier Urresti Vital Fundazioen zuzendari exekutiboak; Iratxe Asurmendi AEMAReko jardueren koordinatzaileak; Emilio Sola Gizarte Politiketako foru diputatuak; Marian Olabarrieta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako zuzendariak; eta Livia López Kirol eta Osasun zinegotziak.

Gizartea gaixotasun horren inguruan sentsibilizatzeko, Mojate-Busti Zaitetz ekimena antolatzen da udaro, duela hogeita hiru urtetik hona (nahiz eta iazkoa ezin izan zen aurrez aurreko eran burutu pandemiagatik). Oraingoan, Estadio Fundazioko, Mendizorroztako eta Aldaieta Klub Nautikoko igerilekuetan parte hartu ahal izango da Araban.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi dituen metroak igeri egiteko aukera izango du, eta bukatzean, boluntarioen taldeak diploma egiaztatzailea bana emango die. Jardunaldia amaitzean, esklerosi anizkoitza duten pertsonen laguntzeko ekintza sinboliko batean igeri egindako metro guztiak zenbatuko dira. Gainera, egun osoan zehar, boluntarioek informazioa emango dute eta diptikoak banatuko dituzte, esklerosi anizkoitza zer den eta kanpaina honetan parte hartzeko eta laguntzeko modua azaltzeko.

Ahalik eta diru gehien lortzeko, ekimena gauzatuko den leku guztietan stand bat jarriko da, eta bertan kanpainako merchandising-objektuak jarriko dira salgai, hala nola kamisetak, poltsak, mantalak edo koadernoak, besteak beste. Guztiek daramate Mikel Urmenetak, Katuki Saguyaki enpresaren buruak, diseinatu eta dohaintzan eman duen irudia. Gainera, objektu horiek guztiak elkartearen egoitzan ere erosi ahal izango dira.

Iratxe Asurmendi AEMAReko koordinatzaileak esklerosi anizkoitza dutenen alde bustitzeko deia egin dio Arabako gizarteari. "Igande honetan zuen zain izango gaituzue. Igeri eginez busti zaitezke, edo kamisetak eta gaixotasunak jotako pertsoneri arreta eta errehabilitazio zerbitzu espezializatuak eskaintzen lagunduko dieten beste produktu batzuk erosiz", adierazi du.

“Kanpaina hori Vital Fundazioak AEMAR-Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkartearekin duen lankidetzaren barruan antolatu da. Lankidetzaren horri esker, Arabako Lurralde Historikoan programa estentsibo batzuk garatu eta gauzatuko dira hamabi hilabete hauetan, esklerosi anizkoitzak eragindako pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko”, nabarmendu du Axier Urresti Vital Fundazioen zuzendari exekutiboak.

Iaz pandemiaren ondorioz Busti Zaitetz derrigorrez bertan behera utzi ondoren, Emilio Sola Gizarte Politiketako foru diputatuak adierazi du Arabako Foru Aldundiak AEMARek antolatzen duen udako kanpainarekin duen konpromisoa berriro nahi duela, "ilusio eta inplikazio handiagoz, posible bada, Arabako herritarrek esklerosi anizkoitza pairatzen duten pertsonetako elkartasuna erakusteko bide bat ireki ahal izateko". Ildo horretan, Arabak eta Arabak "txonbo solidarioen errekorra" osatzeko deia egin du.

Bestalde, Marian Olabarrieta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak adierazi duenez, "egunen batean lortuko da gaixotasun hori zerk eragiten duen jakitea, eta esklerosi anizkoitza duten gaixoen bizi-kalitatea hobetzen jarraituko dugu. Horregatik, garrantzitsua da txonbo horrek administrazio publikoen babesa jasotzea, gaur hemen bildu garen bezalako, baina baita herritarrena ere”.

"Esklerosi anizkoitza duten pertsoneri laguntzeak guztiok inplikatzen gaitu. Erakundeak, baliabide materialak eta ekonomikoak ematen dituztelako AEMAR bezalako elkarteek sustatzen dituzten programa terapeutikoak gara daitez. Eta herritarrek, esklerosi anizkoitzak sortzen dituen arazo eta premietatik sentibiltasunik gabe, ezinezkoa izango litzatekeelako Busti Zaitetz kanpaina bezalako ekintzek sortzen duten elkartasun olatu handia", gehitu du Livia López Gasteizko Udaleko Kirol eta Osasun zinegotziak.

Gaixotasunaren egoera

Esklerosi anizkoitza da heldu gazteen artean gaixotasun neurologiko ohikoena. Normalean 20 eta 40 urte bitartean diagnostikatzen da, eta gehiago eragiten die emakumei gizonei baino. Gaixotasun

kronikoa da, eta bizi-kalitatea mugatzen duten ondorioak eragin ditzake; beraz, eragin handia du gizartean. Bost ordutik behin kasu berri bat diagnostikatzen da Estatuan. Gaur egun, 2.800 pertsonak baino gehiagok dute gaixotasun hori Euskadin, 56.000 pertsonak Estatuan. Sintomarik ohikoenak honako hauek dira: nahasmendu sentitiboak, orekaren eta hizketaren nahasmenduak; dardarak, gorputz-adarren ahultasuna eta, kasurik larrienetan, gorputz-adarren paralisia; eta alterazio urologikoak, bertigoa, nekea, inurridurak eta ikusmen-alterazioak. Ez da gaixotasun kutsakorra, ez hereditarioa, ez hilgarria.